



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

EUSKO LEGEBILTZARRAREN IKT FUNTZIOA OPTIMIZATZEKO  
AZTERKETAREN ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK



## **Eskaintzak baloratzeko irizpideak**

*Eusko Legebiltzarraren IKT Funtzioa Optimizatzeko Azterketa egitea*

### **AURKIBIDEA**

1.	SARRERA.....	3
2.	ESKAINZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.....	4
2.1	HAZTAPEN OBJEKTIBOKO IRIZPIDEAK EDO AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITEZKEENAK.....	4
2.2	BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERA HAZTATZEKO ESLEIPEN-IRIZPIDEAK .....	5



## **Eskaintzak baloratzeko irizpideak**

*Eusko Legebiltzarraren IKT Funtzioa Optimizatzeko Azterketa egitea*

### **1. Sarrera**

Agiri honetan esleipen-irizpide bakoitza baloratzeko jarraituko den metodologia zehazten da.

## Eskaintzak baloratzeko irizpideak

*Eusko Legebiltzarraren IKT Funtzioa Optimizatzeko Azterketa egitea*

### 2. Eskaintzak baloratzeko irizpideak

2007ko urriaren 30eko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legeak eta berau garatzeko ondoren onartu diren araudiek xedatzen dutenez, jarraian adierazitako irizpideen arabera ezarri dira eskaintzak baloratzeko irizpideak:

- Haztapan Objektiboko irizpideak edo automatikoki kuantifika daitezkeenak → Guztizko puntuazioaren % 50.
- Haztapan Subjektiboko irizpideak edo balio-judizio bidezko balorazioa. -> Guztizko puntuazioaren % 50

#### 2.1 Haztapan Objektiboko irizpideak edo automatikoki kuantifika daitezkeenak

Honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- **Prezioa. 25 puntu arte.** 25 puntu jasoko ditu proposamenik ekonomikoena egiten duen eskaintzaileak, eta gainerakoak baloratzeko  $X = 20 - [(n/a)-1] \times 100$  formula jarraituko da. Kasu horretan, "X" eskaintzailearen puntuazioa da (zero puntuko minimoarekin), "n" baloratu behar den eskaintzaren prezioa da, eta "a" eskaintzarik ekonomikoaren prezioa da. Jarraian adierazitako kasuetan, eskaintzak neurrigabekotzat edo ezohikotzat joko dira:
  - Lizitatzaille kopurua edozein dela, eskaintza lizitazioaren oinarritzko aurrekontuarekiko 30 portzentaje-unitate baino baxuagoa denean.
  - Bi lizitatzaille badaude, beste eskaintzarekiko 20 portzentaje-unitate baino baxuagoa den eskaintza.
  - Hiru lizitatzaille edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko 10 portzentaje-unitate baino baxuagoak direnak. Hala ere, batez bestekoa kalkulatzeko orduan ez da kontuan hartuko kopururik altuena, baldin eta batez bestekoarekiko 10 portzentaje-unitate baino altuagoa bada.

Proposamen bat neurrigabekotzat edo ezohikotzat jotzen bada, proposamena egin duen lizitatzaileri audientzia emango zaio, eskaintzaren balorazioa justifika dezan eta ezaugarriak zehazteko, batez ere honako alderdi hauek: kontratua gauzatzeko prozedurak dakarren aurrezkia, hartzen diren soluzio teknikoak eta prestazioa gauzatzeko aldeko baldintzak, proposatzen diren prestazioen orijinaltasuna, enpleguaren babesarekin eta lan-baldintzekin erlazioan indarrean dauden xedapenak errespetatzea prestazioa gauzatu den lekuan. Prozeduran kasu kasu dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa eskatuko da.

- **Antzeko proiektuen zerrenda. 15 puntu arte.** 15 puntu arte jasoko dira beste erakunde batzuetan egindako proiektuen 5 erreferentzia edo gehiago egiten badira. Hiru puntu beste erakunde baten erreferentzia bakoitzagatik.

## Eskaintzak baloratzeko irizpideak

*Eusko Legebiltzarraren IKT Funtzioa Optimizatzeko Azterketa egitea*

- **Emate-epaia laburtzea. 10 puntu arte.** 10 puntu arte jasoko dira gehienez ere 2 hilabeteko murrizketa egiten bada. Gainerako eskaintzak proportzionalki baloratuko dira eta 2,5 puntu emango dira aurreratzen den aste bakoitzagatik.

### 2.2 Balio-judizio baten arabera haztatzeke esleipen-irizpideak

Honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- **Soluzioaren planteamendua: 50 puntu arte.** Honako irizpide hauek bereiz daitezke:
  - Proiektu teknikoa: 30 puntu arte.
  - Ekipo teknikoa: 10 puntu arte.
  - Proposatutako hobekuntzak: 10 puntu arte.